



**ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA, VITORIA-GASTEIZKO JUAN DE AYALA APARKALEKUKO 263 ETA 271 PLAZAK ERABILTZEKO ESKUBIDEAK ENKANTE PUBLIKO BIDEZ BESTERENTZEKO**

### **1. LIZITAZIOAREN XEDEA**

Lizitazioaren xedea da Vitoria-Gasteizko Juan de Ayala plazan dagoen Juan de Ayala aparkalekuko Arabako Batzar Nagusien jabetzako 263 eta 271 plazen erabilera-eskubideak besterentzea.

### **2. BESTERENTZEA ERREGULATZEKO ARAUAK**

Agiri honen xede den kontratua pribatua da, eta ondarearen arloko legeriak arautzen du, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 9.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Prestatzeko eta adjudikatzeko egintzak arautuko dituzte agiri honetan jasotako klausulek, Arabako Lurralde Historikoaren Ondareari buruzko martxoaren 27ko 11/2019 Foru Arauak eta aplikatzekoak diren beste xedapen guztiek.

Ondorioei eta azkentzeari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak arautuko dituzte, batez ere Kode Zibilarren IV. liburuko IV. tituluaren salerosketa-kontratuari buruz jasotako xedapenek eta horiek osatzen eta garatzen dituzten xedapenek.

Agiri hau eta erantsitako dokumentu guztiek kontratu-izaera izango dute. Kontratua Baldintza Berezien Agiri honen edukiaren arabera izango da, eta hura kontratuaren zatitza hartuko da.

Agiri hau eta lizitzaileei ematen zaizkien gainerako kontratu- edo informazio-agiriak bat ez badatoz, nagusi izango da kontratuaren alderdiek beren gain hartuko dituzten eskubideak eta betebeharrak jasotzen dituen agiria.

Prozeduran parte hartzeak esan nahi du lizitzaileak agiri honetan eta eranskinetan jasotako baldintzen berri duela eta onartzen dituela, oso-osorik. Baldintza horien edo prozeduraren zati diren dokumentu erantsien, edo Administrazioak onartutako era guztietako jarraibide, agiri edo arauen berri ez izateak, hitzartutakoa gauzatzeko aplikagarri baldin badira, ez du salbuetsiko horiek betetzeko betebeharrak.

### **3. LOTEAK**

Aipatutako erabilera-eskubideen besterentzea egiteko, 2 lote eratu dira:

#### **1. LOTEA**

1. LOTEA	263. plazaren erabilera-eskubidea
TITULARRA	Arabako Batzar Nagusiak, Juan de Ayalako aparkalekua ustiatzeko Vitoria-Gasteizko Udalaren emakida duen SARKIS

	SA enpresarekin egindako lagapen-kontratuaren arabera. <b>I. ERANSKINA</b>
Deskribapena	Plaza erabiltzeko eskubidea emakida amaitu arte (50 urte). Plaza Juan de Ayala aparkalekuko hirugarren solairuan dago, eta 2,40 x 5,00 metroko tamaina du.
Plazaren erabilera- eskubidea eskualdatzeko <b>GEHIENKO</b> prezioa	5.285,48 EURO * <b>II. ERANSKINA</b>

## 2. LOTEA

2. LOTEA	271. plaza erabiltzeko eskubidea
TITULARRA	Arabako Batzar Nagusiak, Juan de Ayalako aparkalekua ustiatzeko Vitoria-Gasteizko Udalaren emakida duen SARKIS SA enpresarekin egindako lagapen-kontratuaren arabera. * <b>I. ERANSKINA</b>
Deskribapena	Plaza erabiltzeko eskubidea emakida amaitu arte (50 urte). Plaza Juan de Ayala aparkalekuko hirugarren solairuan dago, eta 2,40 x 5,00 metroko tamaina du
Plazaren erabilera- eskubidea eskualdatzeko <b>GEHIENKO</b> prezioa	5.285,48 EURO * <b>II. ERANSKINA</b>

**I. ERANSKINA.** Arabako Batzar Nagusiek eta Sarkis SAK 1990ko maiatzaren 30ean sinatutako plazen erabilera lagatzeko kontratuak eransten dira.

**II. ERANSKINA** Juan de Ayala aparkalekuko jabe den Vitoria-Gasteizko Udaleko Ogasun Saileko balorazio-txostenak erantsen dira.

## 4. BESTERENTZEAREN BALDINTZAK

Aparkalekuak erabiltzeko eskubideak eskuratu nahi dituzten lizitatzailleek, beren eskaintza aurkeztu aurretik, fisikoki ezagutzeko aukera izango dute, aldeztu aurretik eskaera eginez gero. Horretarako, Arabako Batzar Nagusien Idazkaritza Nagusiarekin harremanetan jarri beharko dute, 945-125111/120 telefonoan edo [contratacion@jggalava.eus](mailto:contratacion@jggalava.eus) helbide elektronikoan.

Edonola ere, lizitatzailleek erantzukizuna da plazen egoera fisikoa, juridikoa, katastrala eta urbanistikoa ziurtatzea eta egiaztatzea. Egin beharreko egiaztapenak erregistro eta organismo publikoei egindako kontsulten bidez egin ahal izango dira. Beraz, Arabako Batzar Nagusiak salbuetsita egongo dira edozein erreklamaziotatik.

Lizitatzailleek, eskaintza aurkeztean, berriaz onartzen dute enkantearen xede diren plazen egoera juridikoa eta egitatezkoa. Ondorioz, lizitatzailleek uko egiten dio,



esleipendun izanez gero, erabilera-eskubidearen besterentzearen xede diren plazen ebikzio edo akats ezkutuengatik egin dezakeen edozein erreklamaziori.

Arabako Batzar Nagusiek beren gain hartuko dituzte, dagokion kontratua sinatzen den hilabetea amaitu arte, besterentzen diren erabilera-eskubideak dituzten garaje-plazak mantentzeko gastuak.

## **5. PROZEDURAN ESKAINTZA EGITEKO ETA PARTE HARTZEKO GAITASUNA**

Lizitazio honetan parte hartu ahal izango dute, beren kabuz edo ordezkari bidez, Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoek, baldin eta Kode Zibilean aurreikusitakoaren arabera jarduteko gaitasun osoa badute eta SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debeku-kausetako batean ere sartuta ez badaude.

## **6. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EDUKIA ETA FORMA**

Proposamenak isilpekoak izango dira, eta, horretarako, lizitazio publikoa egin arte isilpean gordeko direla bermatzeko bitartekoak jarriko dira. Proposamenak aurkezteak esan nahi du baldintzarik gabe onartzen direla baldintza-agiri honetako klausulak eta, oro har, kontratuko gainerako dokumentuak, inolako salbuespenik gabe, bai eta aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla dioen erantzukizunpeko adierazpena ere.

Lizitazailerak bakoitzak eskaintza aurkeztu ahal izango du lote batera edo bi loteetara.

Ezin izango da proposamenik sinatu beste batzuekin elkartuta, banaka egin badu, eta ezin izango da lizitazaileraren elkarte batean baino gehiagotan agertu. Arau horiek hautsiz gero, aurkeztutako proposamen guztiak onartu gabe geratuko dira berez.

Proposamenak **bi gutun-azal itxitan aurkeztuko dira, kanpoaldean identifikatuta, zer lizitaziotara aurkezten diren adierazita, eta lizitazailerak edo haren ordezkariak sinatuta; enpresaren izen-abizenak edo izen soziala ere adieraziko dira.** Gutun-azalen barruan jarraian zehazten diren dokumentuak egongo dira:

### **LIZITAZAILEAK BI LOTEETARA AURKEZTEN BADU PROPOSAMENA, 1. GUTUN-AZAL BAKARRA ETA 2. GUTUN-AZAL BI AURKEZTU AHALKO DITU**

#### **1 GUTUN-AZALA: JARDUTEKO GAITASUNA**

Gutun-azal honetan jarraian zerrendatzen diren dokumentuak jaso beharko dira:

##### **a) Jarduteko gaitasuna egiaztatzeko dokumentuak**

Honakoen bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna:

- Lizitazien duena pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala edo horren ordezkari gisa balio duen agiria aurkeztuta.
- Pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatutako eraketa- eta/edo aldaketa-eskritura aurkeztuta, betekizun hori aplikatzeko den merkataritza-legeriaren arabera eskatzeko denean. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, eraketa-eskritura edo -agiria, aldaketa-eskritura edo -agiria,



estatutuak edo sortze-egintzaren agiria aurkeztu beharko dira eta, bertan, jarduera arautzen duten arauak jaso beharko dira. Horiek denak dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egon behar dute, hala badagokio. Halaber, identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) aurkeztuko du

- Lizitatzailerak ondasunen komunitate bat balitz, identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) eta eraketa-eskritura aurkeztu beharko du.
- Jabeen komunitate bat bada, identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ), sortze-akta eta Batzar Nagusiaren erabakia aurkeztu beharko ditu. Erabaki horrek haren izenean jarduten duenaren ordezkari izan behar du eta erosteko egitea ahalbidetu behar du.

#### **b) Atzerriko pertsona fisiko eta enpresa lizitatzailerak**

Honakoen bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna:

- Lizitatzen duena atzerriko pertsona fisiko bat balitz, NANaren baliokide den agiria edo pasaporteak aurkeztuta.
- Espainiakoak ez diren enpresa lizitatzailerak jarduteko gaitasuna, Europar Batasuneko estatu kideetakoak bada, ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan izena emanda egiaztatuko da, edo zinpeko adierazpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztuta, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, aplikatzekoak diren Europar Batasuneko xedapenen arabera.
- Atzerriko gainerako lizitatzailerak jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren txostenarekin edo enpresaren egoitza dagoen lurralde-eremuko Kontsuletzeko Bulegoaren txostenarekin.
- Pertsona fisikoek zein atzerriko pertsona juridikoek berriazko adierazpen bat aurkeztuko dute. Adierazpen horretan azalduko dute kontratuan zuzenean nahiz zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla eta, hala badagokio, uko egiten diotela lizitatzailerari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari.

#### **c) Ordezkaritza egiaztatzen duten dokumentuak**

Beste pertsona baten izenean agertzen direnek edo proposamenak sinatzen dituztenek NANaren edo haren ordezkari gisa balio duen dokumentuaren kopia aurkeztuko dute, baita horretarako ahalorde askiatsia ere. Ordezkatua pertsona juridikoa bada, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko da. Hala ere, ahalordea egintza jakin baterako bada, ez da beharrezkoa izango Merkataritza Erregistroan inskribatzea, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

#### **d) Erantzukizunpeko berriazko adierazpena**

**III. ERANSKINEAN** jasotako ereduaren arabera, bosgarren klausulan jasotako kontratatzeko debekurik ez izatearena.



## e) Posta elektronikoko helbidea

Ahal den guztietan, helbide elektronikoko bat adierazi beharko da jakinarazpenetarako.

**Lizitatzailerik batek baino gehiagok batera parte hartuz gero:** aurreko atalean eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko dituzte, baita jabekidetzan erosteko konpromisoaren idazki bat ere, honako hauek adieraziz: horien guztien izenak eta inguruabarrak, bakoitzak jabekidetzan duen partaidetzaren ehunekoak eta ordezkari edo solaskide gisa jardungo duen pertsona baten izendapena; pertsona horrek, prozeduran, guztien erabateko ordezkari izango du.

## 2. GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA.

Gutun-azal horretan proposamen ekonomikoa jasoko da, **IV. ERANSKINEAN** agertzen den ereduaren arabera idatzita, lizitatzailerik edo haren ordezkariak sinatuta, eta eskaintako balioa adieraziko da erosketaren prezio gisa.

Proposamen hori aurkeztuko da kontratazio-organoak eskaintza kontuan hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi jakitea eragozten duen akats edo zirriborrorik gabe. Hala eginez gero, proposamena baztertu egingo da.

Zenbakitan eta letratan adierazitako zenbatekoak ezberdinak badira, letraz adierazitakoa hartuko da aintzat.

## 7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA EPEAK

Besterentze-prozedura honen deialdia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta Arabako Batzar Nagusien web atarian argitaratuko da. Bertan, gainera, enkanteari eta esleipen-prozeduraren garapenari buruzko dokumentazio eta informazio interesgarria eskuratu ahal izango da.

Aipatu diren bi gutun-azalak, eskaintzak aurkezteko ereduarekin batera (agiri honen **V. ERANSKINA**), Arabako Batzar Nagusien Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (Vicente Goikoetxea kalea 2, 01001 Vitoria-Gasteiz), **HOGEITA HAMAR EGUN NATURALEKO EPEAN, iragarkia Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.**

Proposamenak aurrez aurre edo posta arruntez aurkeztuko dira. Postaz bidaltzen bada, posta-bulegoan zein egunetan jarri den egiaztatu beharko da, eta kontratazio-organoari egun berean jakinarazi beharko zaio eskaintza bidali dela, [contratacion@jggalava.eus](mailto:contratacion@jggalava.eus), posta elektronikokoaren bidez. Bi baldintza horiek betetzen ez badira edo bidali izanaren jakinarazpena geroago jasotzen bada, eskaintza ez da onartuko. Nolanahi ere, egun horretatik aurrera hamar egun natural igarotzen badira proposamena jaso gabe, ez da inola ere onartuko.

Gutun-azalak itxita eta behar bezala sinatuta aurkeztuko dira, eta horietan lizitatzailerik izena edo izenak adieraziko dira, bai eta honako inskripzio hau: **“JUAN DE AYALA APARKALEKUKO GARAJE-PLAZEN ERABILERA-ESKUBIDEAK BESTERENTZEKO DEITUTAKO ENKANTE PUBLIKOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”**.



Gutun-azalean, gainera, bakoitzaren edukia adieraziko da, honakoa zehaztuta:

1. GUTUN-AZALA: JARDUTEKO GAITASUNA
2. GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA.

## 8. ENKANTEAREN MAHAIA.

Kontratazio-mahaia izango da eskaintzak baloratzeko eskumena duen organo teknikoa, eta SPKLren 326. artikuluan aurreikusitakoaren arabera jardungo du, baita maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21. eta 22. artikuluen arabera ere, artikuluen horiek mahaiaren osaera eta eginkizunak garatzen baitituzte.

Mahaiaren osaera atal honetan jasotakoa da, eta enkantearen deialdiaren iragarkiarekin batera argitaratuko da edo, hala badagokio, Mahaia eratu aurretik.

Lehendakaria:

- Arabako Batzar Nagusietako legelari nagusi José Ramón García Plazaola.

Kideak:

- 1. kidea: Ekonomia eta aurrekontu arloko teknikari Noelia Garnica.
- 2. kidea: Kudeaketa parlamentarioko teknikari Blanca González.

Idazkaria:

- Arabako Batzar Nagusietako legelari Ainhoa Sagarduy

## 9. PROZEDURA

### 9.1. ADJUDIKATZEKO MODUA ETA ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEA.

Kontratua prozedura ireki eta enkante publiko bidez adjudikatuko da. Eskaintzak baloratzeko eta eskaintzarik onena zein den zehazteko, adjudikazio-irizpide bakar bati jarraituko zaio, hau da, preziorik handiena, **betiere 3. LOTEEN ATALEAN EZARRITAKO ERABILERA-ESKUBIDEA LAGATZEKO GEHIENEO PREZIOA GAINDITZEN EZ BADA. Prezio hori gaindituko balitz, enkantearen Mahaiak eskaintza baztertuko luke.**

Bi proposamen edo gehiagoren zenbatekoa berdina bada, adjudikazio-proposamena proposamenak aurkezteko epearen barruan lehenengo aurkeztu duen lizitatzaileri egingo zaio.

### 9.2. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA.

#### 1. gutun-azala irekitzea eta aztertzea.

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, Enkantearen Mahaiak ireki eta kalifikatuko ditu lizitatzailerek aurkeztutako agiriak, garaiz eta behar bezala, 1. gutun-azalean. Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akatsak edo omisioak ikusten baditu, pertsona edo enpresa interesdunei jakinaraziko die, eta gehienez ere hiru egun naturaleko epea emango die horiek zuzendu edo konpontzeko.



Era berean, Enkantearen Mahaiak aurkeztutako ziurtagiri eta dokumentuei buruzko argibideak eskatu ahal izango dizkio lizitatzailari, edo beste dokumentu osagarri batzuk aurkezteko eskatu ahal izango dio. Hori bost egun naturaleko epean egin beharko du, gehienez ere, eta une horretan Mahaiak ezin izango du bere gain hartu eskaintzak onartzeko edo akatsak edo omisioak zuzentzeko epean nahitaez aurkeztu beharreko dokumenturik.

Mahaiak, behin dokumentazio administratiboa kalifikatuta eta, hala badagokio, aurkeztutako dokumentazioak zituen akatsak edo hutsak konponduta, eskakizunak betetzen dituzten lizitatzailak zehaztuko ditu eta berariaz adieraziko du zeintzuk onartu diren lizitazioan, zeintzuk ez diren onartu eta zergatik ez diren onartu.

## **2. gutun-azala irekitzea eta aztertzea.**

Behar bezala adierazitako lekuan, egunean eta orduan, Enkantearen Mahaiak, jendaurreko ekitaldian, proposamen ekonomikoa jasotzen duen 2. gutun-azala irekiko du.

Ekitaldi hori hasteko, berariazko adierazpen bat egingo da, mahaiak egin duen lizitazioen kalifikazioari buruzkoa. Adierazpen horrek lizitaziorako onartutakoak eta baztertutakoak identifikatuko ditu, eta baztetu direnak zergatik baztertu diren argituko du. Jarraian, enkantearen mahaiak onartutako lizitatzailen 2. gutun-azala irekiko du eta eskaintza ekonomikoak irakurriko ditu

Proposamenen bat aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez badator, lizitazio-tasa baino handiagoa bada, partziala bada, ezarritako eredia nabarmen aldatzen badu, proposamenaren zenbatekoan akats nabarmena badago, edo pertsona edo enpresa lizitatzailak onartzen badu proposamena bideraezin bihurtzen duen akatsen bat edo funtsik eza duela, mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu bidez. Ostera, ereduaren hitz batzuk aldatzeak edo ahazteak, ereduaren zentzua aldatzen ez baldin badute, ez du ekarriko proposamena ezestea.

## **10. ENKANTEA ADJUDIKATZEA**

Enkantearen mahaiak aurkeztutako eskaintzak ebaluatuko ditu, eta kontratazio-organoari bidaliko dizkio, aktarekin batera, dagokion balorazioa eta adjudikatzeko proposamena. Proposamen horretan eskaintzak beherantz ordenatuta agertuko dira, eta baldintza-agiri honen 9.1 klausulan ezarritako irizpidea aplikatuko da.

Enkantea adjudikatzeko proposamenak ez dio inolako eskubiderik ematen proposatutako lizitatzailari, eta hark ez ditu eskuratuko Administrazioaren aurrean, kontratua formalizatzen ez den bitartean.

Kontratazio-organoak errekerimendua egingo dio eskaintzarik onena aurkeztu duen pertsonari edo enpresari, **hamar egun balioduneko epean**, errekerimendu hori jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, honako hauek aurkez ditzan:

- a) Zerga-betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.



- b) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari lotutako jarduerak egiten dituzten enpresen eta pertsona fisikoen kasuan, altaren egiaztagiria eta zerga horren ordainketa egunean izatearen egiaztagiria. Horretarako, ordaindutako azken ordainagiriaren kopia aurkeztu beharko da, zerga horren matrikulan baja hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpenarekin batera.

Aurreko apartatuan aipatutako dokumentazioa behar bezala eta ezarritako epean aurkezten ez bada, lizitatzailleak eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta zigor gisa lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren ehuneko 3 eskatuko zaio, zergak kenduta.

Aurreko paragrafoan adierazitako kasuan, hurrengo lizitatzaileri dokumentazio berbera eskatuko zaio, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkera berean.

Errekerimenduan adierazitako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan adjudikatu beharko du kontratazio-organoak kontratua. Ezin izango da lizitazio bat bete gabetzat jo, baldin eta agirian jasotako irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.

Kontratua adjudikatuta eta errekurtsioak aurkezteko epeak errekurtsorik aurkeztu gabe igarota, proposamenekin batera doan dokumentazioa proposatzaileen eskura geratuko da. Kontratua esleitu eta urtebeteko epean jaso ez bada, Administrazioak erabaki bat hartuko du kontratua suntsitzeaz.

Behin kontratua adjudikatuta, formalizatu egingo da.

## **11. PREZIOAREN ORDAINKETA**

Besterentzearen prezioa esleipenaren zenbatekoa izango da, eta kontratua formalizatzen den unean ordainduko da, banku-transferentzia bidez, egintza bakar batean, eta ez da onartuko ordainketa zatikaturik, ezta gauzatan ordaintzea ere.

## **12. ARAUBIDE JURIDIKOA**

Agiri honen interpretazioaren inguruan sor daitezkeen auziak Arabako Batzar Nagusietako Mahaiak ebatziko ditu, esleipendunari entzun ondoren. Bere erabakiek eta ebazpenek administrazio-bidea agortuko dute, eta berehala betearaztekoak izango dira. Administrazio-bidea amaitzen duten erabakien eta ebazpenen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango da. Aukeran, berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio erabakia hartu duen foru-organoari.

Jurisdikzio zibilak izango du kontratu horien inguruan alderdien artean sortzen diren eztabaidak ebazteko eskumena. Nolanahi ere, egintza juridiko bereizgarritzat hartuko dira prestatzearekin eta adjudikatzearekin lotuta ematen direnak, eta, ondorioz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu ahal izango dira, haren araudi erregulatzailearen arabera.





### III. ERANSKINA.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

..... jaunak/andreak (helbidea:  
..... PK: .....; NAN zk.:.....; telefonoa:  
.....; eta helbide elektronikoa: .....), bere izenean edo  
enpresa honen izenean: ..... (helbide soziala:  
..... PK: .....; IFZ: .....; telefonoa: .....;  
eta helbide elektronikoa: .....),

#### ADIERAZTEN DU:

1.- Bai berak, bai ordezkatzan duen enpresak, ahalmena dutela administrazio publikoarekin kontratuak egiteko; izan ere, jarduteko gaitasun osoa dute, eta ez dute Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan adierazitako kontratatzeke debekurik, lege horretan aurreikusitako moduan eta baldintzetan.

2.- Bai berak bai ordezkatzan duen enpresak egunean dituzte indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

3.- Pertsona fisikoa edo atzerriko enpresa baldin bada:

BAI, eta Espainiako jurisdikzioaren eta auzitegien mende jartzen naiz, eta dagokidan atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diot.

EZ

Eta hala jasota gera dadin, honakoa sinatzen dut .....-(e)n, 2024ko .....aren .....(e)an.

Izpta.: \_\_\_\_\_



#### IV. ERANSKINA.- PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

..... jaunak/andreak (helbidea:  
..... PK: .....; NAN zk.:.....; telefonoa:  
.....; eta helbide elektronikoa: .....), bere izenean edo  
enpresa honen izenean: ..... (helbide soziala:  
..... PK: .....; IFZ: .....; telefonoa: .....;  
eta helbide elektronikoa: .....),

#### ADIERAZTEN DU:

**1.- GASTEIZKO JUAN DE AYALA APARKALEKUKO 263 ETA 271 PLAZAK ERABILTZEKO ESKUBIDEAK ENKANTE PUBLIKO BIDEZ BESTERENTZEKO LIZITAZIOARI** buruz ALHAOn argitaratutako iragarkiaren berri izan duela.

2.- Ezagutzen dituela lizitazio-tasa eta administrazio-klausula zehatzen agirian jasotako klausula guztien edukia, eta berariaz onartzen eta ontzat hartzen dituela, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

3.- Lehiaketan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela.

4.- Proposamen ekonomiko honen xede den garaje-plazaren (zeinaren erabilera-eskubidea besterentzen den) egoera juridiko-erregistralaz jakitun dela eta onartzen duela, bai eta haren egoera urbanistikoa eta fisikoa ere.

5.- Honako proposamen ekonomikoa aurkezten duela 1. LOTerako / 2. LOTerako.

#### ZENBATEKOA (LETRA)

#### ZENBATEKOA (ZENBAKIA)

Eta hala jasota gera dadin, honako hau sinatzen dut .....-(e)n, 2024ko .....aren ....(e)an.

Izpta.: \_\_\_\_\_



## V. ERANSKINA.- ERREGISTROAN PROPOSAMENA EMATEKO EREDUA

..... jaunak/andreak (helbidea:  
..... PK: .....; NAN zk.:.....; telefonoa:  
.....; eta helbide elektronikoa: .....), bere izenean edo  
enpresa honen izenean: ..... (helbide soziala:  
..... PK: .....; IFZ: .....; telefonoa: .....;  
eta helbide elektronikoa: .....),

### ADIERAZTEN DU:

Ezen gaurko ...(ordua).... direla, eta bere proposamena osatzen duten \*\*\* gutun-azal ematen dituela, **VITORIA-GASTEIZKO JUAN DE AYALA APARKALEKUKO 263 ETA 271 PLAZAK ERABILTZEKO ESKUBIDEAK ENKANTE PUBLIKOAREN BIDEZ BESTERENTZEKO** lizitaziorako prozeduran.

Eta hala jasota gera dadin, honako hau sinatzen dut.....-(e)n, 2024ko.....aren ....(e)an

Izpta.: \_\_\_\_\_

